

Lezoko zine agenda

OTSAILA

FEBRERO

2005



Gezala


AUDITORIUMA

800
zine ma

Osteguna / Larunbata **2,00 €**

Igandea **1,00 €**

OSTEGUNA • jueves



PLATA QUEMADA

Eztabaidak eztabaida zinema latinoko bi mutil ederrenetariakoak elkartzen dira film honetan: Noriega eta Sbaraglia. Horien zaletu izan edo ez, aitortu beharra dago bakoitzak egindako pelikulen zerrendan izenburu interesgarri batzuk aurkitu daitezkeela. Bestalde, Marcelo Piñeyoren filmografia izango da ziurrenik (Adolfo Aristarainenarekin batera) egun Argentinan egiten ari den zinearen adierazgarri nagusia.

Gaizkile banda batek furgoi baten lapurretan parte hartzeko eskatuko diete 'Los Mellizos' deitzen dieten Noriega eta Sbaragliari.

2000, Argentina 🕒 125 min. 🏠 Marcelo Piñeyro
👥 Eduardo Noriega, Leonardo Sbaraglia, Pablo Echarri, Leticia Brédice, Ricardo Bartis.




ENTRE ABRIL Y JULIO

"Lekuz kanpo egotea baino gauza okerragorik bada, lekuz kanpo sentitzea eta zure lekua hori dela pentsatzea". Hori dio pelikula honen karte-leko publizitateak. Ez du saririk, ezta antzezle ezagunik. Zuzendaria bera ere ezezaguna da eta film hau bere *opera prima* da. Kritikek diotenaren arabera pelikula freskoa omen da. Julio irratian aritzen da lanean esatari moduan gauetan. Abril musika irakaslea da. Bien artean sortzen den harremana du oinarri istorioak.

Irabazteko jokatu egin behar da, beraz, arriskatu zaitezte!


2002, Espainia 🕒 92 min. 🏠 Aitor Gaizka Sempere
👥 Javier Albalá, Marina Seresky, Pilar Punzano, Roberto Enriquez.



THE LADYKILLERS

1955ean Alexander Mackendrickek, hemen *El quinteto de la muerte* izenburuarekin ezagutuko zen filmea egin zuen Alec Guinness antzezle paregabea buru zuela. Ia 50 urte geroago Coen anaiek *The Ladykillers* orduko pelikula haren bertsio propioa burutu dute. Istorio bera, baina ikuspuntu eta modu ezberdinez kontatuak, komedia oso erakargarriak dira biak ere. Honako honek Coen anaiei zigilua du eta hori beti berme bat da. 2004ko Canneseko edizioan epaimahaiaren saria irabazi zuen.

2004, EEBB 🕒 104 min. 🏠 Coen anaiek
👥 Tom Hanks, Irma P.Hall, Marlon Wayans, Tzi Ma, J.K.Simmons, Ryan Hurst.




RASHOMON

Venecian sari nagusia irabazi zuen Kurosawak pelikula honekin 1951an. Akira Kurosawaren beste maisulan baten aurrean gaude. Oraingoan erailketa baten berri ematen digu baina berrikuntza batekin: Istorio bera lau ikuspuntutatik kontatzen du, kontakizun bakoitzean detaile berriren bat txertatzen duelarik. Ondorioz, gertakizun berari buruzko lau bertsio sortzen ditu. Zein izango da istorio horietatik benetakoa dena? Thrillerek sortzen duten ezinegona sortuz, zine klasikoa txuri beltzean.

1950, Japonia 🕒 88 min. 🏠 Akira Kurosawa.
👥 Toshirō Mifune, Machiko Kyō, Masayuki Mori, Takashi Shimura.

LARUNBATA • sábado



INFIERNO

Ez da Portugaletik gauza handirik iristen gure zinemetara eta gure artean han egindako akziozko pelikula bat ikusi duenik aurkitzeko lanak izango genituzke. Aukera paregabea beraz! Portugalgo armadako komando berezietako izandako bi soldaduk arazoak dituzte narkotrafikatzaileekin Espainia eta Portugalgo mugan. Soldaduak bahitu egiten dituzte eta bere adiskide zaharrak horiek libratzeko elkartzea erabakiko dute. Hemendik aurrera, pentsa dezakezen bezala, tiroak eta leherketak nahi adina!


1999, Portugal 🕒 115 min. 🏠 Joaquim Leitao
👥 Nicolau Breyner, Joaquim de Almeida, Sancho Gracia, Gerardo Giacinti.



LAS MANOS VACIAS

Askotan hitz egiten dugu euskal zineaz. Baina zer Catalunya-koaz? Ba ote dute Espainian, Euskal Herrian eta Catalunya-
n egiten den zineak ezaugarri propioak? Eta ezberdintasunik? Galdera horiek erantzuten hasteko Marc Recha, Catulnyako zuzendari gaztea honen film hau ikusiz hasi zaitezke. Donostiako *Nosferatu*koek Rechari ziklo bat eskaini diote jada: oraindik dozena erdi pelikula egin ez dituenen? Zergatik? Hurbildu zaitezte eta kuriositatea asetu!


2003, Espainia, Frantzia 🕒 106 min. 🏠 Marc Recha.
👥 Dominique Marcos, Eduardo Noriega, Pierre Berriau, Eulalia Ramón.



SUBWAY

Fred Parisko metroan bizi da eta bizimodua lapurreta txikietatik ateratzen du. Horietako lapurreta batean dirudun bati dokumentu garrantzitsu batzuk lapurtzen dizkio. Dirudunaren emazteak dokumentuak eskuratu nahi ditu, Fredek emakume horrekin ezkondu eta rock talde bat eratu nahi du. Bitartean mafia eta polizia atzetik dituzte... Metroko tunelek osatzen duten labirintoa izango da bere babesleku.... Besson-en (*Nikita*, *León* (*El profesional*), *El gran azul*) hirugarren pelikula. 3 Cesar 1986ean!

1985, Frantzia 🕒 110 min. 🏠 Luc Besson
👥 Isabelle Adjani, Christopher Lambert, Richard Bohringer, Jean Bouise.



Kill Bill Vol.1+Vol.2

2 emanaldi

Ikus oharra
hurrengo orrian


Q u e n t i n T a r a n t i n o



ANNA - ANNA

Anna kopiagailu batekin lanean ari den bitartean eskolako atezaina sartzen da gelan. Bera kopiagailuan ezkutatzen saiatuko da eta nahi gabe, botoiari emanaz, martxan jarriko du. Kopiagailuen egin behar nagusia kopiak egitea denez Annaren kopia bat egingo du, annA alegia. Anna bat bihurria bazen pentsa zer izan daitezken bi Anna. Film benetan barregarri eta entretenigarria.

1993, Al., Sui, Lux. 80 min. Jürgen Brauer eta Greti Kläy.
Lea Hürlimann, Wanda Hürlimann, Ilona Schulz.



YOLANDA ARROSA BELTZAREN SEKRETUA

Yolandak 18 urte betetzearan jakingo du aita, Emilio Ventimiglia kondea, Kortsario Beltza izan zela. Eta bere patua Karibeko herriak eta filibusteroak tiraniatik askatzea dela konturatuko da. Europako bizimodu erosoa utzi, eta Mundu Berrira abiatuko da belatontzi batean, Maracaiboko gobernadore gaiztoaren aurka aitak hasitako borrokan jarraitzera. Marrazki bizidun kolorez oparoa! Igande honetan gaztetxo guztiak zinemara anima zaitezte!

2000, EH 73 min. Toni García
Marrazki bizidunak.



HIRUKIAK: PINOTXO / OIHANEKO LIBURUA

Gaurkoan Lezoko haurren artean jada oso lagunak diren hiru ahizpa hauek bi istorio kontatuko dizikgute: Pinotxo eta Oihaneko liburua. Ipuin klasikoetan oinarritutako serie honek arrakasta handia du gaztetxoenen artean eta berriro ere gure artean dira hain ezagunak diren ipuinen beren bertsio propioa kontatzeko.

2003, Catalunya 60 min. Hainbat.
Marrazki bizidunak.



IPAR HAIZEAREN ITZULERA

Joan den hilean ikusteko aukera izan genuen *Ipar Haizearen Erronkaren* jarraipena da. Ipar Haize maltzurra itsasoa eta hango izaki guztiak izozteko asmotan dabil, eta itzuli egingo da Annie, Peiot eta Watunari mendekua hartzeko. Hiru lagunak Ipar Haizea berriro ere Ontzi Sakratuan ixtea lortu arte borrokan arituko dira. Berriro, gazteoi hainbeste gustatzen zaizkizuen istorioa zoragarriak kolore bizi eta disdiratsuetan!

1994, EH 71 min. Maite Ruiz de Austria.
Marrazki bizidunak.

AUDITORIUMA

OTSAILA - febrero

eguna/día	ordua/hora	pelikula
OSTEGUNA 3	22:00	PLATA QUEMADA
LARUNBATA 5	22:00	INFIERNO
IGANDEA 6	16:30	ANNA - ANNA
OSTEGUNA 10	22:00	ENTRE ABRIL Y JULIO
LARUNBATA 12	22:00	LAS MANOS VACIAS
IGANDEA 13	16:30	YOLANDA ETA ARROSA BELTZAREN SEKRETUA
OSTEGUNA 17	22:00	THE LADYKILLERS
LARUNBATA 19	22:00	SUBWAY
IGANDEA 20	16:30	HIRUKIAK: PINOTXO / OIHANEKO LIBURUA
OSTEGUNA 24	22:00	RASHÔMON
LARUNBATA 26	22:00	KILL BILL (Vol. I)
2 Emanaldi	21:00	KILL BILL (Vol. II)
	16:30	IPAR HAIZEAREN ITZULERA

THE BRONTËS kontzertuan

otsailak 25 ostirala 21:00etan
GEZALA AUDITORIUMEAN

KONTZERTUA




Hilabete honetan Gezalan, "THE BRONTËS" musika taldeak izango du bere emanaldia. Gasteizen sortua eta bertatik etorritako talde gazte honek hamar urteko ibilbide luzea egingo du. Izan ere, 1998an SGAEk antolatzen duen "Imaginarock" lehenengo saria lortu zuten eta geroztik 100 kontzertutik gora eskaini dituzte estatu osoan.

"Moontime" izan zen lehenengo diskoa eta aldi berean, abiapuntu ederra taldearen musika entzuten hasteko. Orduan, disko hori entzuten, Ixai Barrenetxeak, Garako Gazte Alagaran, honela zioen: "hamabi kanta banan bana jartzen dituzu kanta bakoitzeko edertasun apunteak hartzeko asmotan, baina hasi orduko konturatzen zara ezin duzula. Zerrenda urratu eta kanta guztiak hautatzen dituzu".

"Mary & Jim" da bigarren diskoaren izena eta oinarria gitarretan jarraitzen badu ere, The Brontës-ek sortzen duen pop-a hain da atsegina eta garbia behin eta berriro entzuteak ez duela nekatzen.

Dударик gabe zuzenean entzun eta ikusteak merezi duen kontzertua da.



LAKRIKUN ANTZERKI TALDEA

Otsailak 18, ostirala gaueko 21:00etan
GEZALA AUDITORIUMEAN

Hiru garbitzailek grebara joatea erabaki dute, grebaren zergatia hasera batean inork argi ez badu ere. Hirurak elkartu egingo dira eta solasari ekingo diote. Beraien artean oso ezberdinak dira eta gaiak jorratzeko orduan, ezberdintasun hauek agerian geratuko dira. Ironia handiz, maitasunez, familiaz, sexuaz, ilusioaz, desioez... arituko dira. Emakumezkoen pentsaera eta ikuspegi desberdinak azalduko dituzte.

LAKRIKUN ANTZERKI TALDEAK aurkezten du "GREBAN GAU"



Pertsonaiak

Elena. Salerosa bat, erdaraz asko aritzen dena. Senarrarengandik bananduta dago eta usadio zaharreko emakumea hitzetan.

Arantxa: Beti negarrez, oso sentibera da. Tanatorioa garbitzen egiten du lan. Ez dauka oso garbi zer izan nahi duen ez eta bere bizitza zertan datzan. Beste esanetara moldatzen den pertsona da.


Jaione. Emakume modernoa. Abokatua izatez, baina abokatu bulego bat garbitzen egiten du lan. Teoriarik asko dakiena, baina praktikan... Rollo filosofikotarako joera handikoa Ezkongabea da.

ANTZERKIA

Kill Bill Vol.1+Vol.2

"Bigarren zatiak behin ere ez dira onak izan" dioten esaera asko erabiltzen da zineman. Ez da kasu honetan aplikagarri. Ez bigarren zatia ona edo txarra delako, bigarren zatirik ez duelako baizik. Dirudienez Kill Bill bi bolumenetan aurkeztea ekoizpen etxeak jarritako baldintza izan zen pelikula luzeegia zenaren argudiopean. Eta pelikula biak ikusita hori horrela dela nabaritzen da. Bi zati dituen pelikula baino, pelikula luze bat da Kill Bill.

Lezon larunbatek ematen duten denbora aprobetxatu eta biak batera ikusteko aukera eskaini nahi izan dugu. Hortaz, larunbatean 20:00etan lehen bolumena ikusi ahal izango da eta 22:00etan bigarrenkoa. Bien artean mokadutxo bat jan nahi duenak denbora gehiegirik ez, baino aukera izango du. Bestalde, bi proiektzioetara ezin baduzu etorri ez zaitez gehiegi kezkatu, bietako edozein aparte ikusita ere pelikula baten osotasuna dute eta ez zara istorioan galduko. Beraz, Quentin Tarantinoren zalea bazara ez ezazu bere azken lana(k) ikusteko aukera galdu eta har ezazu betekada atsegina!



KILL BILL (Vol. I)

Haurdun dagoen Beatrix Kiddo (Lehen bolumen honetan ez da bere izena esaten) ezkontzen ari den unean, bere talde berekoak izandako soldatapeko 4 hiltzaile elizan sartu eta bertan bildutako guztiak hiltzen dituzte. Guztiak ez! Beatrix eta bere haurra (izango dena jaiotzen bada) bizirik (koman) geratuko dira. Urte batzuen ondoren Beatrixek koman egoteari utziko dio eta bere ezkontza eguna 'odolez margotu zuten' bere taldeko partaide ohiak akabatzea izango du helburu bakarra. Japoniaraino iritsiko da, eszena luzeenean 80tik gora 'karatekekin' borrokatu du, baina taldeko bi 'bakarrik' hilko ditu.

2003, EEBB 111 min. Quentin Tarantino.

Uma Thurman, Lucy Liu, Daryl Hannah, Vivica A.Fox.



KILL BILL (Vol. II)

Pelikularen jarraipen honetan 'betiko' Tarantinorekin egiten dugu topo: elkarriketa iradokitzaileak, umore fina, pertsonai osatuagoak, muntai egitura oso onak (gogoratu Tarantino flash back egiten artista bat dela) eta istorio oso sendoa. Bigarren bolumenean Beatrixek bere mendeakua aurrera darama,

Gezala

AUDITORIUMA

K
U
L
T
U
R
A
K

